

bilbao museoa

BBKateak **Gentileschi –** **Aranberri**

Arte Ederren Bilboko Museoa
Museo de Bellas Artes de Bilbao

bbk 

Gentileschi – Aranberri

7. aretoa

Eraikin zaharra


Lehen solairua

Leize-zuloa

Atal biblikoa garatzen den haitzuloan zulo bat dago, eta handik ageri da Loten mozkorraldiaren metafora den mahats-parra bat. Haren eskuek Sodoma hiri zaharrera, gaur egun Itsaso Hilaren azpian dagoen haranera, begira jartzen gaituen erritmoari ekiten diote. 2003an, Aranberrik historiaurreko leize-zulo bat itxi, eta haren barrutik bizitza filmatu zuen, irekidura zirkular batetik zehar. Bi hamarkada geroago, artistak leizea ireki eta itxitura geometrizaratu zuen.

1

Eraikin zaharra Lehen solairua



Orazio Gentileschi

1563-1639

Florentziako urregile baten semea eta Artemisia Gentileschi margolariaren aita izan zena, Vatikanon hasi zen arte langintzan, pintura-multzo handiak fresko estiloan apainduz. Hasiera batean estilo naturalista eta Caravaggioren erako argi-ilun sendoko modelatua bereganatu bazuen ere, laster eboluzionatu zuen kromatismo argitsu eta sofistikuago baterantz. Orobat, Genovan eta Turinen lan egin zuen, bai eta Parisen ere, Maria Medicikoa erreginentzat. Ingalaterrako Karlos I.ak gonbidatuta, Londresera joan zen 1626an, eta han Buckinghamgo dukearentzat eta Henrietta Maria erreginentzat margotu zuen batik bat. Aldi hartan egin zioten enkargurik garrantzitsuena Greenwich-eko Queen's Houseko sabaia dekoratzekoa izan zen. Era berean, Bibliako gaiei buruzko konposizio ikusgarriak ere egin zituen.



Lot eta bere alabak

c. 1628. Olioa mihisean


Haitzulo baten barruan garatutako eszena hau Lotek eta haren alabek Sodomako sutetik ihes egin zuteneko Bibliako pasarteari dagokio. Atzealdean, eskuinean, sutan dagoen hiria ikusten da, eta Loten emaztea irudikatzen duen irudi ñimiño bat, Jainkoak atzera ez begiratzeko agindu ostean, hari erronka jo eta gatz-estatua bihurtua. Isuritako ardoak Lot mozkortuta dagoela irudikatzen du, alabek hartara bideratuta, harengandik seme-alabak izateko asmoz; izan ere, bizirik iraun zuten bakarrak zirela uste zuten. Kolore eder-ederrei eta konposizio zirraragarriari esker, Gentileschik Londresko aldian egindako lanik onenetako bat da.

1924an eskuratua

Ibon Aranberri

1969

Bilboko Arte Ederren Fakultatean lizentziatuta, Milango Arte Ederren Akademia berrian ere ikasi zuen eta Tokio, New York eta Stockholmen egonaldiak eginez osatu zuen heziketa aldia. 2004an, Eusko Jaurlaritzak ematen duen Gure Artea saria jaso zuen, eta, hiru urte geroago, Kasseleko Documentan parte hartu zuen; une horretaz geroztik nazioarteko proiektio handia lortu zuen. Diziplinarteko artista izanik, Aranberrik bere lanetan eskultura, zinema eta argazkilaritza uztartzen dituenez, sortzen duena sailkatzeko zaila izaten da askotan. Azterketa sakonetik abiatuta eta ikuspegi kritikoz, gizakiak bere ingurunean daukan eragina bezalako gaiak jorratzen ditu.



Zulo beltzen geometria

2019. Altzairuzko moduluak, kataforesi estaldura, altzairu galvanizatuko habeak eta egurra

2003an, Aranberrik Gipuzkoako mendietan kokatutako historiaurreko haitzulo batean esku hartu zuen, altzairuzko moduluz osatutako egitura lau opaku batekin jendeari sarbidea itxiz. Egitura horrekin, barruan bizi zen saguzar koloniak sartu-irtenerako aukera zeukan, okulu edo idi-begi batean zehar. (*Ir. T. n. 513*) *zuloa* –horixe da arkeologia-gidetan haitzuloaren zientzia-kodea– izeneko *land art* proiektuaren asmoa ez zen lekua babestea, baizik eta hura “birkodetzea”. Bi hamarkada geroago, artistak espazioa askatzea proposatu zuen, egitura metalikoa berreskuratuta, eta artelan autonomo bihurtu zen, instalazio postminimalista erakoa.

2019an eskuratua



Izenbururik gabea (Barrutik kanpora)

2019. Bideo digital monokanala

Obra hau areto honetan bertan dagoen *Zulo beltzen geometria* instalazioari bide eman zion itxitura metalikoa desmuntatu baino lehen haitzuloan egindako grabazioarekin abiatu zen. Horren asmo bakarra haitzuloan bizi zen saguzarren koloniaren sartu-irtenak aztertzea zen, batere helburu artistikorik gabe. Hala ere, egilea konturatu zen horrek izan zezakeen ahalmen poetiko oroitarazle izugarriaz, eta hala erakutsi zuten 2019an Stuttgarten, *Sleeping with a Vengeance*, *Dreaming of a Life* erakusketa kolektiboan. Jatorrizko grabazioarekin egindako muntaketa berri baten emaitza da bideoa.

Artistaren dohaintza 2020an

BBKateak

BBKateak erakusketa-proposamenaren helburua da bildumari narratiba berriak ematea, museoaren handitze proiektuko lanek iraun bitartean. Aldizka eguneratuko den aurkezpen-programa dinamiko baten bitartez, eraikin zaharreko areto bakoitzak bi artistaren eta haien lanen espero gabeko aurrez aurreko bat erakutsiko digute; denboran edo/eta jatorri kultural edo geografikoan urrunekoak izan daitezkeen izenak izango dira; horrela, arteari buruzko ikuspegi eraldatzailea eta eraikitzen ari dena iradokiko da. Modu horretan, museoaren metamorfosia islatuko da etengabe aldatzen ari den bilduma batean.

Programa *Hamahiru Centaurusera* lanak abiaraziko du; Sergio Prego artistaren eskultura-proiektua da, aretoak hustetik sortua.